

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

2016ko landa, hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zerga kobratzea

Afro Olabe Martinez Albeniz jauna, Barrundiako Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut: 2016ko irailaren 1etik aurrera ordaindu ahal izango direla araututako epean 2016ko ondoko zergak:

- Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zerga.

I. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: 2016ko irailaren 1etik urriaren 31ra arte.

B) Betearazte aldia: 2016ko azaroaren 1etik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, premiamendu urrituzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta badute. Udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa banku bidez helbideratuta ez daukatenean udalak Kutxabank eta Laboral Kutxan dituen edozein kontutan dirua sartuta egingo dute ordainketa.

III. Gomendioak

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Barrundiako Udalari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Ozaetan, 2016ko abuztuaren 11n

Alkatea

AFRO OLABE MARTÍNEZ DE ALBENIZ